

Enpleguari buruzko Legea
Ley de Empleo

ENPLEGUARI BURUZKO LEGEA

LEY DE EMPLEO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

emari la zabalazazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ENPLEGUARI BURUZKO LEGEA

LEY DE EMPLEO

AITOR BONGOETXEA ALKORTA
*UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren
Zuzenbideko Irakaslea
Argitalpenaren koordinatzailea*

IÑAKI INURRIETA LABAIEN
IRENE ALDASORO KATARAIN
Itzultzaileak

ANTTON ELOSEGI ALDASORO
*UPV/EHUko Euskara Juridikoko irakaslea
Zuzenbideko Euskararen Mintegiko arduraduna*

JUAN GARZIA GARMENDIA
UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

JOSÉ ÁNGEL TAMAYO ERRAZQUIN
*UPV/EHUko Zuzenbide Erromatarreko Irakaslea
Bildumaren koordinatzailea*

- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social
- © Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea/Impresión: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

ISBN: 978-84-9860-232-6

Lege-gordailua/Depósito legal: BI - 1.472-09

AURKIBIDEA



ÍNDICE

Prólogo. Joseba Azkarraga Rodero	10
Enplegua eta langabezia. Aitor Bengoetxea Alkorta	17
Ley 56/2003, de 16 de diciembre, de Empleo.	19
Exposición de motivos	20
Título preliminar. De la política de empleo	26
Capítulo único. Normas generales.	26
Título I. El Sistema Nacional de Empleo	32
Capítulo I. Disposiciones generales.	32
Capítulo II. El Servicio Público de Empleo Estatal.	38
Capítulo III. Los Servicios Públicos de Empleo de las comunidades autónomas.	46
Título II. Instrumentos de la política de empleo	48
Capítulo I. La intermediación laboral	48
Capítulo II. Las políticas activas de empleo	52
Capítulo III. La coordinación entre las políticas activas y la protección económica frente al desempleo	56
Disposiciones adicionales	60
Disposiciones transitorias	62
Disposición derogatoria única	64
Disposiciones finales.	64
LÉXICO.	73

Hitzaurrea. Joseba Azkarraga Rodero	11
Enplegua eta langabezia. Aitor Bengoetxea Alkorta	17
56/2003 Legea, abenduaren 16koa, Enpleguari buruzkoa	19
Zioen azalpena	21
Atariko titulua. Enplegu-politika	27
Kapitulu bakarra. Arau orokorrak	27
I. titulua. Enplegu Sistema Nazionala	33
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	33
II. kapitulua. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa	39
III. kapitulua. Autonomia-erkidegoetako Enplegu Zerbitzu Publikoak	47
II. titulua. Enplegu-politikaren tresnak	49
I. kapitulua. Lan-bitartekotza	49
II. kapitulua. Enplegu-politika aktiboak	53
III. kapitulua. Politika aktiboak eta langabeziari aurre egiteko babes ekonomikoa koordinatzea	57
Xedapen gehigarriak	61
Xedapen iragankorrak	63
Xedapen derogatzaile bakarra	65
Amaierako xedapenak	65
LEXIKOA	71

Prólogo

Esta nueva presentación supone la continuidad de la Colección *Legeak - Leyes*, fruto del Convenio de Colaboración que tienen suscrito el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU para la traducción de textos jurídicos.

Esta tarea me resulta muy grata por mi condición de Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, ya que esta obra recoge la **Ley 56/2003, de 16 de Diciembre, de Empleo [LE]**, materia inherente a la competencia cuya responsabilidad ejerzo.

El tratamiento de esta Ley responde a la finalidad de establecer una nueva regulación adaptada a una época y circunstancias en las que el mercado de trabajo ha evolucionado sustancialmente, incidiendo en él factores, tales como la evolución demográfica, las tecnologías de la información y comunicación o la nueva orientación de la política social. Ello no obstante, dicha situación ha de ubicarse en el contexto de un mercado de trabajo en el que, entre otras circunstancias, cabe señalar, de una parte, que elude profundizar en el principio comúnmente aceptado en el marco de la Unión Europea, de la necesidad de reforzar el carácter de lo local en las políticas de empleo, restringiendo por tanto las competencias que en ésta materia tiene la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el que aún no se han producido las transferencias de las políticas activas de empleo a la Comunidad Autónoma de Euskadi, en tanto que, de otra, la Unión Europea dispone fondos para financiar dichas políticas, que son derivados mediante el Servicio Público de Empleo Estatal, lo cual merece ser criticado, toda vez que habría de corresponder a la Comunidad Autónoma su tratamiento directo con las instancias comunitarias.

De otra parte, se ha de tener en cuenta la actual situación de crisis global, la cual podría ser tratada mediante esta Ley, ya que en su *Exposición de Motivos*

Hitzaurrea

Aurkezpen berri honek jarraipena ematen dio *Legeak - Leyes* bildumari, hau da, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak testu juridikoak itzultzeko izenpeturik daukaten lankidetzahitzarmenaren fruituari.

Oso eginkizun atsegina da hau Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua naizen honentzat, **Enpleguari buruzko 2003ko abenduaren 16ko 56/2003 Legea** jasotzen baita lan honetan: nire ardura den eskumenari dagokion gaia.

Lege hau lantzean, beste erregulazio bat ezartzeko helburuari erantzuten zaio. Lan-merkatuak bilakaera nabarmena izan du; eragina izan dute hartan, besteak beste, bilakaera demografikoak, informazio eta komunikazioaren teknologiek zein gizarte-politikaren joera berriak, eta beharrezkoa zen garai eta egoera horretara egokituriko erregulazio bat. Hala eta guztiz ere, lan-merkatuaren egoera hori testuinguru jakin batean kokatu behar da, eta esan daiteke, alde batetik, lan-merkatuaren testuinguru horrek saihestu egiten duela enplegu-politikan tokikotasuna indartu beharra, Europar Batasunaren esparruan eskuarki onartua den printzipioa, eta murrizten dituela, beraz, Euskadiko autonomia-erkidegoak gai honetan dituen eskumenak, Euskadiko autonomia-erkidegoak oraindik enplegu-politika aktiboak eskualdatu gabe dituelarik; beste alde batetik, berriz, Europar Batasunak baditu funtsak politika horiek finantzatzeko, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartez bideratzen direnak, eta hori kritikagarria da, autonomia-erkidegoari bailegokioke haiek zuzenean Europar Erkideko erakundeekin kudeatzea.

Bestalde, beharrezkoa da gaur egungo krisi globala kontuan izatea; krisi hori lege honen bidez trata liteke, *Zioen Azalpenean* argi eta garbi ezartzen baitu lege

claramente establece que «tiene por objetivo incrementar la eficiencia del funcionamiento del mercado de trabajo y mejorar las oportunidades de incorporación al mismo para conseguir el objetivo del pleno empleo, en línea con lo que reiteradamente los Jefes de Estado y de Gobierno han venido acordando en las cumbres de la Unión Europea, desde el inicio del proceso de Luxemburgo hasta su ratificación en la Cumbre de Barcelona. Ello se traduce en ofrecer a los desempleados, bajo los principios de igualdad de oportunidades, no-discriminación, transparencia, gratuidad, efectividad y calidad en la prestación de servicios, una atención preventiva y personalizada por los servicios públicos de empleo, con especial atención a los colectivos desfavorecidos, entre los cuales las personas con discapacidad ocupan un lugar preferente. Las políticas de empleo deben funcionar como instrumentos incentivadores para la incorporación efectiva de los desempleados al mercado de trabajo, estimulando la búsqueda activa de empleo y la movilidad geográfica y funcional», y potenciando de forma especial la formación del capital humano, para que de esta manera se puedan adaptar a las necesidades de un mercado y una tecnología cambiante. Todo ello responde a la finalidad de desarrollar programas y medidas tendentes a la consecución del pleno empleo en los términos acordados en las Cumbres de Jefes de Estado y de Gobierno de Lisboa.

La Ley señala que establece una armonización del nuevo modelo en función de la actual distribución de competencias entre el Estado y las Comunidades Autónomas en materia de política de empleo, con el objetivo de asegurar la cooperación y coordinación entre las Administraciones implicadas para lograr la máxima efectividad movilizandoy optimizando todos los recursos disponibles. A tal fin, se configura el Sistema Nacional de Empleo, integrado por el Servicio Público de Empleo Estatal y los Servicios Públicos de las Comunidades Autónomas, siendo sus órganos la Conferencia Sectorial de Asuntos Laborales y el Consejo General del Sistema Nacional de Empleo y sus instrumentos el Plan nacional de acción para el empleo, el Programa anual de trabajo del Sistema Nacional de Empleo y el Sistema de información de los Servicios Públicos de Empleo. Pues bien, más allá de las previsiones de la Ley, sería preciso un nuevo modelo estructural que recogiera, bajo los principios de colaboración y de lealtad institucional, las competencias que en esta materia tiene reconocidas nuestra Comunidad así como la transferencia de las políticas de empleo, activas y pasivas. La asunción de dicha competencia garantizaría, asimismo, los principios de participación de las organizaciones empresariales y sindicales más representativas, la transparencia en el funcionamiento del mercado de trabajo y el establecimiento de las políticas necesarias para asegurar la libre circulación de trabajadores por razones de empleo o formación —artículo 8.1 y 2—.

honen xedea dela «lan-merkatuaren funtzionamendua eraginkorrago bihurtzea eta merkatu horretan sartzeko aukerak hobetzea enplegu osoa lortzeko, estatuburu eta gobernuburuak Europar Batasunaren gailurretan behin eta berriz hitzartu dutenaren ildotik, Luxenburgoko prozesuaren hasieratik Bartzelonako Gailurrean berretsi zen arte. Horrek esan nahi du enplegu-zerbitzu publikoek arreta prebentzioskoa eta pertsonalizatua eskaini behar dietela langabeei, aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren, doakotasunaren, eraginkortasunaren eta kalitatearen printzipioen pean, arreta berezia eskainiz gizatalde kaltetuenei, eta, horien artean, ahalmen-urritasunak dituzten pertsonen lehentasuna emanez. Enplegu-politikek sustapen-tresna gisa funtzionatu behar dute langabetuak lan-merkatuan benetan sar daitezten, enplegua aktiboki bilatzea eta mugigarritasun geografiko eta funtzionala bultzatuz» eta, bereziki, giza kapitalaren prestakuntza sustatuz, merkatu eta teknologia aldakor baten beharretara egokitu daitezten. Horren guztiaren helburua enplegu osoa lortzeko programa eta neurriak garatzea da, Estatuburu eta Gobernuburuaren Lisboako Gailurrean hitzarturiko eran.

Legeak dio eredu berriaren halako egokitze bat ezartzen duela, gaur egun Estatuak eta autonomia-erkidegoek enplegu-politikaren arloan duten konstituzio-eskumenen banaketari dagokionez, inplikaturiko administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa bermatzeko helburuz, eskura diren baliabide guztiak mobilizatu eta optimizatuz ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko. Horretarako, Enplegu Sistema Nazionala eratzen da, Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoetako Zerbitzu Publikoek osatua; haren organoak Lan Gaietarako Konferentzia Sektoriala eta Enplegu Sistema Nazionalaren Kontseilu Nagusia dira, eta haren tresnak, berriz, Enplegurako ekintza-plan nazionala, Enplegu Sistema Nazionalaren Urteko lan-programa eta Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio-sistema. Horrela, bada, Legearen aurreikuspenetatik harago, beste eredu estruktural bat behar litzateke, gai honetan gure autonomia-erkidegoari aitorturiko eskumenak eta enplegu-politika aktiboak zein pasiboak bilduko litzukeena, instituzioen arteko lankidetzeta eta leialtasunaren printzipioen barruan. Eskumen hori hartzeak, halaber, ordezkagaitasun nagusia duten enpresaburu-erakunde eta sindikatuen parte-hartzearen printzipioak, lan-merkatuaren funtzionamenduaren gardentasuna eta enpleguaren zein prestakuntzaren kariaz langileek askatasunez zirkulatzea bermatuko litzuke (8.1 eta 2 artikulua).

En particular, atendiendo a la diferencia competencial que la Ley atribuye al Servicio Público de Empleo Estatal —artículo 13— y a los Servicios Públicos de Empleo de las Comunidades Autónomas —artículo 17—, cabe constatar la nula voluntad del legislador estatal de atender al respeto y cumplimiento de la competencia estatutaria, lo cual hace ineludible, por parte de la Comunidad Autónoma, de desarrollar, de acuerdo con el artículo 12.2 de su Estatuto de Autonomía, una normativa propia, asumiendo las facultades y competencias que en este terreno ostenta actualmente el Estado.

En suma, siendo relevante esta Ley por su finalidad, resulta criticable por el sistema organizativo y procedimental, obviando y vulnerando una norma de rango superior como es el Estatuto de Autonomía, por lo cual habría de ser integrada por la correspondiente normativa comunitaria.

Por último, desearía subrayar la importancia de la traducción de una norma perteneciente al Derecho Laboral, por cuanto que constituye un derecho vivo, directamente relacionado con la ciudadanía y vital para el desarrollo económico y productivo. Por ello, quisiera hacer llegar a todos quienes participan en el citado Convenio entre el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, mi mensaje de ánimo para que prosigan en la labor que están desarrollando.

Joseba AZKARRAGA RODERO
Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social

Zehazki, Legeak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari eta autonomia-erkidegoetako Zerbitzu Publikoei esleitzen dizkien eskumenetan dagoen aldea kontuan izanik (13. eta 17. artikulua), bistan da estatuko legegileak ez duela batere borondaterik estatutu-eskumena gorde eta betetzeko, eta, horregatik, ezinbestekoa gertatzen zaio Autonomia-erkidegoari bere araudia garatzea, Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua araber, gai honetan gaur egun Estatuak dituen ahalmen eta eskumenak bere gain hartuz.

Laburbilduz, nahiz eta lege hau garrantzizkoa izan bere helburuarengatik, kritikagarria da antolamendu- eta prozedura-sistema, maila goreneko arau bat —Autonomia Estatutua— saihestu eta kaltetzen baitu, eta, beraz, autonomia-erkidegoko dagokion araudian sartua behar bailuke.

Azkenik, Lan Zuzenbideko arau bat itzultzearen garrantzia azpimarratu nahi nuke, eskubide bizi bat baita, herritarrekin harreman zuzena duena eta ezinbestekoa ekonomiaren eta ekoizpenaren garapenerako. Horregatik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmen horretan parte hartzen duten guztiei adone eman nahi nieke diharduten lanean jarrai dezaten.

Joseba AZKARRAGA RODERO
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburua

Enplegua eta langabezia

Hemen euskaraturik aurkezten dugun Enpleguari buruzko Legearekin tresna baliagarri bat ipini nahi genuke hainbat eragile euskaldunen eskuetan: jurista, ekonomialari, sindikalista eta, oro har, gaian interesaturik, liburu honetara hurbiltzen den edonor.

Laburra izanda ere, Enpleguari buruzko Legeak gizarte-garrantzi handiko gaia tratatzen du, krisi ekonomikoen gizarte-ondorio nagusia langabeziaren igoera izaten baita. Enplegu-politika politika ekonomikoaren atal bat izanik, ekonomia eta zuzenbidearen arteko esparruan gaude. Ohikoa da hainbat adierazle makroekonomikoren artean langabeziaren datuak ikustea, inflazio, barne produktu gordin, hazkunde ekonomiko eta antzekoen artean langabetu bakoitzaren atzean sarritan egoten den gizarte-drama zenbaki hotzetan adierazten.

Legeak jasotzen dituen eskumenak botere publikoen artean banatzeko orduan, Estatuak enplegu-politika pasiboak (langabezia-prestazioak ordaintzea) gordetzen ditu beretzat, autonomia-erkidegoen eskuetan utzirik enplegu-politika aktiboak (langabetuak informatzea, orientatzea, eta haien prestakuntza hobea-gotzea, dirulaguntzen bitartez haien kontratazioa sustatzea, eta abar).

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, luzaroan eskatu du Jaurlaritzak enplegu-politika osoaren eskumena: politika aktiboak eta politika pasiboak. Sistematikoki, Espainiako Gobernuak ezetza eman du; bakarrik politika aktiboak eskaini ditu, langabezia prestazioen ordainketa Jaurlaritzaren esku utziz gero Gizarte Segurantzako kutxa bakarra apurtuko litzatekeelakoan, Konstituzioak agintzen duenaren kontra. Azken argudio hori juridikoki aski eztabaidagarria izanik ere, gatazkak bere horretan dirau, ez atzera eta ez aurrera, eta, desadostasunaren ondorioz, une honetan Lege honen banaketa-eskema ez da aplikatzen EAEn, antzeko politikak garatzen baitituzte, politika aktiboetan, Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoak (INEM) eta Jaurlaritzak babesturiko Lanbidek, estatus juridiko publikorik gabekoa azken hori.

Gizarte Estatu baten testuinguruan, botere publikoek lehentasuna eman beharko liokete langabeziaren arazoari beren politika ekonomikoa garatzeko, zeren, inkestek sarritan diotenaren arabera, horixe baita gizartearen arazo eta kezka nagusietariko bat.

Aitor BONGOETXEA ALKORTA
Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Irakaslea
EHU/UPV

56/2003 LEGEA,
ABENDUAREN 16KOA,
ENPLEGUARI BURUZKOA

LEY 56/2003,
DE 16 DE DICIEMBRE,
DE EMPLEO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La vigente Ley Básica de Empleo 51/1980, de 8 de octubre, se aprobó en un contexto en el que la situación socioeconómica, tecnológica y de organización territorial presentaba unos perfiles bien distintos de los actuales.

Dicha situación se caracterizaba por la existencia de un único servicio público de empleo, que actuaba formalmente en régimen de monopolio, centralizado en torno al Instituto Nacional de Empleo y con competencia en la totalidad del territorio estatal. La implantación de las políticas activas era muy moderada, mientras que la protección por desempleo era concebida exclusivamente como prestación económica en las situaciones de falta de trabajo.

A lo largo de los últimos años, el entorno social, económico, organizativo y tecnológico ha experimentado cambios fundamentales.

Efectivamente, en primer término, la evolución del mercado de trabajo en el largo periodo de tiempo transcurrido desde la aprobación de la Ley Básica de Empleo ha visto cómo se producían situaciones de pérdida de puestos de trabajo, con expulsión del mismo de los colectivos más sensibles, a la vez que aumentaba la dificultad de su acceso al empleo, el desempleo y las tasas de temporalidad en la contratación, acentuándose los desequilibrios territoriales.

Junto a ello, se han producido situaciones expansivas que han permitido la creación de empleo. No obstante, persiste una alta tasa de paro y una baja tasa de ocupación, comparativamente con las cifras de la Unión Europea, especialmente para el colectivo de mujeres.

Además, se mantienen dificultades de incorporación al mercado de trabajo de determinados colectivos, con especial incidencia en el paro de larga duración, carencias de capacitación de la población trabajadora, retenciones a la movilidad geográfica y funcional, desequilibrios entre los distintos mercados de trabajo, una excesiva temporalidad en la ocupación y una escasa tasa de participación de los servicios públicos de empleo en la intermediación laboral.

Diversos factores adicionales han afectado al mercado de trabajo en estos años: la evolución demográfica, primero con la presión ejercida por los jóvenes en el acceso a su primer empleo y, posteriormente, con el envejecimiento de la población activa; el fenómeno inmigratorio, con la consiguiente llegada de importantes recursos humanos procedentes del exterior a nuestro mercado de tra-

ZIOEN AZALPENEA

Indarrean den 1980ko urriaren 8ko 51/1980 Enpleguaren Oinarrizko Legea onetsi zenean, egoera sozioekonomikoa, teknologikoa eta lurralde-antolamendua oso desberdina zen gaur egungoaren aldean.

Garai hartan, enplegu-zerbitzu publiko bakar bat zegoen —hori zen egoeraren berezitasuna—; enplegu-zerbitzu publiko horrek, formalki, monopolio gisa jarduten zuen, Enplegu Institutu Nazionalaren inguruan zentralizaturik eta Estatuaren lurralde osoan eskumena zuelarik. Politika aktiboek oso ezarpen mugatua zuten, eta langabezia-babesa ez zen ulertzen lanik gabeko egoeretako prestazio ekonomiko huts gisa baino.

Azken urteotan funtsezko aldaketak gertatu dira gizarte, ekonomia, antolamendu eta teknologiaren ingurunean.

Izan ere, lehenik eta behin, Enpleguaren Oinarrizko Legea onartu zenetik igarotako denbora luzean, ikusi da lan-merkatuaren bilakaeran lanpostu-galerak gertatu direla, eta, horrekin batera, gizatalde ahulenen kaleratzea, eta, aldi berean, gizataldeok gero eta zailtasun handiagoak zituztela enplegua lortzeko, handiagoak zirela langabezia eta aldi baterako kontratuen tasak, eta nabarmenagoak lurraldeen arteko desorekak.

Horrekin batera, izan dira hedatze-aldiak ere, enplegua sortzeko bidea eman dutenak. Baina langabezia-tasa altua da oraindik, eta enplegu-tasa, berriz, apala, Europar Batasuneko kopuruekin konparatuz gero, batez ere emakumei dagokienez.

Gainera, oraindik badira zenbait gizatalde —iraupen luzeko langabezia daudenak bereziki— lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak; badira langileen prestakuntza-gabeziak, mugigarritasun geografikoari eta funtzionalari buruzko trabak, lan-merkatuen arteko desorekak; aldi baterako enplegu gehiegi dago eta enplegu-zerbitzu publikoek lan-bitartekotzan duten parte-hartzearen tasa txikia da.

Beste hainbat faktorek ere eragin diote lan-merkatuari urteotan: demografiaren bilakaerak, gazteek lehen enplegua izateko egindako presioarekin lehenik, eta populazio aktiboaren zahartzearekin gero; immigrazioaren fenomenoak, haren ondorioz giza baliabide ugari iritsi baita kanpotik gure lan-merkatura. Bestetik, berriz, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek

bajo; de otra parte, el desarrollo fulgurante de las tecnologías de la información y de la comunicación; la nueva orientación de la política social (de la asistencia pasiva a los incentivos para la reinserción laboral), o la apertura a los agentes privados de los servicios de información, orientación e intermediación, constituyen un conjunto formidable de retos a los que se enfrenta una política de empleo tendente al pleno empleo.

Pero no sólo se ha transformado y se ha vuelto más complejo el mercado de trabajo en el que actúan los servicios públicos de empleo, también ha cambiado el entorno político e institucional. El método tradicional de gestión estatal del mercado de trabajo ha dado paso a planteamientos más descentralizados con transferencias de funciones y servicios para la ejecución de las políticas activas de empleo a las comunidades autónomas. De otra parte, la financiación de estas políticas tiene un componente importante de fondos procedentes de la Unión Europea, a través del Servicio Público de Empleo Estatal, aun cuando la gestión de las mismas se lleva a cabo por las Administraciones autonómicas.

En la actualidad, los servicios públicos de empleo han de actuar en un entorno más competitivo, complejo y dinámico y han de posicionarse en el mercado prestando un servicio de calidad a sus usuarios.

Por último, la globalización de la economía y el progreso de integración europea ya no permiten pensar y actuar sólo en clave nacional. La estrategia de coordinación de políticas iniciada en la Unión Europea —política económica, a través de las Grandes Orientaciones de Política Económica, y política de empleo, a través de las Directrices de Empleo y los Planes nacionales de acción para el empleo, en coordinación con la estrategia de inclusión social— obliga al Estado español a establecer objetivos cuantificados de actuación con desempleados, toda vez que la Unión Europea vincula la distribución de fondos europeos (Fondo Social Europeo) al logro de dichos objetivos, lo que necesariamente obliga al establecimiento de mecanismos que hagan posible su cumplimiento.

En este contexto, esta ley tiene por objetivo incrementar la eficiencia del funcionamiento del mercado de trabajo y mejorar las oportunidades de incorporación al mismo para conseguir el objetivo del pleno empleo, en línea con lo que reiteradamente los Jefes de Estado y de Gobierno han venido acordando en las cumbres de la Unión Europea, desde el inicio del proceso de Luxemburgo hasta su ratificación en la Cumbre de Barcelona. Ello se traduce en ofrecer a los desempleados, bajo los principios de igualdad de oportunidades, no-discriminación, transparencia, gratuidad, efectividad y calidad en la prestación de servi-

garapen ikaragarri bizkorra izan dute; gizarte-politikari orientazio berria eman zaio (laguntza pasibotik, birlaneratzeko pizgarrietara); informazio-, orientazio- eta bitartekortza-zerbitzuak eragile pribatuei ireki zaizkie, eta horiek denak desafio handiak dira enplegu osora jotzen duen enplegu-politikarentzat.

Baina enplegu-zerbitzu publikoek jarduera-eremu duten lan-merkatua eraldatu eta konplexuago bihurtu bada, orobat aldatu da inguru politiko eta instituzionala ere. Lan-merkatuaren kudeaketa estatalaren metodo tradizionalaren ondotik, planteamendu deszentralizatuagoak etorri dira enplegu-politika aktiboak betetzeko funtzio eta zerbitzuak autonomia-erkidegoei eskualdatzearekin. Beste alde batetik, berriz, politika horien finantzaketan osagai garrantzitsua dira Europar Batasunetik Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartez datozen diru-funtsak, politika horien kudeaketa administrazio autonomikoek egiten badute ere.

Gaur egun, enplegu-zerbitzu publikoek ingurune lehiakorrago, konplexuago eta dinamikoagoan jardun behar dute eta erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua eskainiz bilatu behar dute lekua merkatuan.

Azkenik, ekonomiaren globalizazioarekin eta Europaren integrazioaren aurrerabidearekin, ezinezkoa da jada nazio-ikuspegi hutsez pentsatzea eta ekittea. Europar Batasunean abian jarritako politikak koordinatzeko estrategiak —batetik, politika ekonomikoa, Politika Ekonomikorako Orientazio Nagusien bidez, eta bestetik, enplegu-politika, Enplegurako Ildo Nagusien eta enplegurako ekintza-plan nazionalen bidez, gizarteratze-estrategiarekin koordinaturik— langabetuekiko jardueretan helburu kuantifikatuak zehaztera behartzen du Espainiako estatua; izan ere, helburu horiek lortzearekin lotzen du Europar Batasunak europar funtsen banaketa (Europako Gizarte Funtsa), eta horrek, ezinbestean, helburuok lortu ahal izateko bideak ezartzea eskatzen du.

Testuinguru honetan, lege honen xedea da: lan-merkatuaren funtzionamendua eraginkorrago bihurtzea eta merkatu horretan sartzeko aukerak hobetzea enplegu osoa lortzeko, estatuburu eta gobernuburuek Europar Batasunaren gailurretan behin eta berriz hitzartu dutenaren ildotik, Luxenburgoko prozesuaren hasieratik Bartzelonako Gailurrean berretsi zen arte. Horrek esan nahi du enplegu-zerbitzu publikoek arreta prebentziozkoa eta pertsonalizatua eskaini behar dietela langabeei, aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren, doakotasunaren, eraginkortasunaren eta kalitatearen prin-

cios, una atención preventiva y personalizada por los servicios públicos de empleo, con especial atención a los colectivos desfavorecidos, entre los cuales las personas con discapacidad ocupan un lugar preferente. Las políticas de empleo deben funcionar como instrumentos incentivadores para la incorporación efectiva de los desempleados al mercado de trabajo, estimulando la búsqueda activa de empleo y la movilidad geográfica y funcional.

Desde una perspectiva de armonización del nuevo modelo con la actual distribución de competencias constitucionales entre el Estado y las comunidades autónomas, en materia de política de empleo, los objetivos se centran en asegurar la cooperación y coordinación entre las Administraciones implicadas de modo que se logre la máxima efectividad movilizando y optimizando todos los recursos disponibles. El instrumento nuclear para conseguir tal finalidad es el Sistema Nacional de Empleo, considerado este como un conjunto de estructuras, medidas y acciones necesarias para promover y desarrollar la política de empleo, que tiene como finalidad el desarrollo de programas y medidas tendentes a la consecución del pleno empleo en los términos acordados en la Cumbre de Jefes de Estado y de Gobierno de Lisboa. Dicho Sistema está integrado por el Servicio Público de Empleo Estatal y los Servicios Públicos de las comunidades autónomas. Sus órganos son la Conferencia Sectorial de Asuntos Laborales y el Consejo General del Sistema Nacional de Empleo. Sus instrumentos, el Plan nacional de acción para el empleo, el Programa anual de trabajo del Sistema Nacional de Empleo y el Sistema de información de los Servicios Públicos de Empleo. La participación de las organizaciones empresariales y sindicales más representativas en dicho sistema, así como en los Servicios Públicos de Empleo Estatal y de las comunidades autónomas, además de ser necesaria en un modelo constitucional como el español y respetuosa con nuestros compromisos internacionales, aporta, finalmente, mayores garantías de cohesión y éxito al proyecto.

Finalmente, es objetivo esencial de la ley la definición de la intermediación laboral, instrumento básico de la política de empleo, en la que cabe la colaboración con la sociedad civil, con respeto a los principios constitucionales y de acuerdo a criterios de objetividad y eficacia.

La ley establece también un concepto más moderno de las políticas activas de empleo, verdaderas herramientas de activación frente al desempleo, que se complementan y relacionan con la prestación económica por desempleo y se articulan en torno a itinerarios de atención personalizada a los demandantes de empleo, en función de sus características y requerimientos personales y profesionales.

tzipioen pean, arreta berezia eskainiz gizatalde kaltetuenei, eta, horien artean, ahaldunen-urritasunak dituzten pertsonen lehentasuna emanaz. Enplegu-politikek sustapen-tresna gisa funtzionatu behar dute langabetuak lan-merkatuan benetan sar daitezzen, enplegua aktiboki bilatzea eta mugigarritasun geografiko eta funtzionala bultzatuz.

Eredu berria gaur egun Estatuak eta autonomia-erkidegoek enplegu-politikaren arloan duten konstituzio-eskumenen banaketarekin bateratze aldera, inplikaturiko administrazioen arteko lankidetzaz eta koordinazioa bermatzea da xede nagusia, eskura diren baliabide guztiak mobilizatu eta optimizatuz ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko. Xede hori lortzeko funtsezko tresna Enplegu Sistema Nazionala da, hots, enplegu-politika bultzatzeko eta garatzeko egitura, neurri eta ekintzen multzoa, enplegu osoa lortzeko neurriak eta programak garatzea helburu duena, estatuburu eta gobernuburuen Lisboako Gailurrean adostu bezala. Sistema hori Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoetako Zerbitzu Publikoek osatzen dute. Haren organoak Lan Gaietarako Konferentzia Sektoriala eta Enplegu Sistema Nazionalaren Kontseilu Nagusia dira. Haren tresnak, berriz, Enplegurako ekintza-plan nazionala, Enplegu Sistema Nazionalaren Urteko lan-programa eta Enplegu Zerbitzu Publikoaren Informazio-sistema. Ordeztagaitasun nagusia duten enpresaburu-erakunde eta sindikatuak sistema horretan eta Estatuaren eta autonomia-erkidegoen enplegu-zerbitzu publikoetan parte hartzea beharrezkoa da Espainiako bezalako eredu konstituzional batean, eta gure nazioarteko konpromisoen arabera, baina horretaz gainera, kohesio eta arakastarako berme handiagoak ematen dizkio proiektuari.

Azkenik, lan-bitartekotza definitzea da legearen funtsezko helburua; enplegu-politikaren oinarritako tresna da lan-bitartekotza, gizarte zibilarekin lankidetzan aritzea onartzen duena, konstituzio-printzipioak gordez eta objektibotasun- eta eraginkortasun-irizpideen arabera.

Legeak, halaber, enplegu-politika aktiboen kontzeptu modernoago bat ezartzen du. Langabeziaren kontrako benetako aktibatze-tresnak dira politika horiek; langabezia-prestazio ekonomikoarekin osatzen eta erlazionatzen dira, eta enplegu-eskatzaileentzako arreta pertsonalizatuzko ibilbideen inguruan artikulatzen, haien ezaugarrien eta behar pertsonal eta profesionalen arabera.

TÍTULO PRELIMINAR
DE LA POLÍTICA DE EMPLEO

CAPÍTULO ÚNICO

Normas generales

Artículo 1. Definición

Teniendo en cuenta lo establecido en los artículos 40 y 41 de la Constitución, la política de empleo es el conjunto de decisiones adoptadas por el Estado y las comunidades autónomas que tienen por finalidad el desarrollo de programas y medidas tendentes a la consecución del pleno empleo, así como la calidad en el empleo, a la adecuación cuantitativa y cualitativa de la oferta y demanda de empleo, a la reducción de las situaciones de desempleo y a la debida protección en las situaciones de desempleo.

La política de empleo se desarrollará, dentro de las orientaciones generales de la política económica, en el ámbito de la estrategia coordinada para el empleo regulada por el Tratado constitutivo de la Comunidad Europea.

Artículo 2. Objetivos de la política de empleo

Son objetivos generales de la política de empleo:

a) Garantizar la efectiva igualdad de oportunidades y la no discriminación, teniendo en cuenta lo previsto en el artículo 9.2 de la Constitución Española, en el acceso al empleo y en las acciones orientadas a conseguirlo, así como la libre elección de profesión oficio sin que pueda prevalecer discriminación alguna, en los términos establecidos en el artículo 17 del Estatuto de los Trabajadores.

Dichos principios serán de aplicación a los nacionales de Estados miembros del Espacio Económico Europeo y, en los términos que determine la normativa reguladora de sus derechos y libertades, a los restantes extranjeros.

b) Mantener un sistema eficaz de protección ante las situaciones de desempleo, que comprende las políticas activas de empleo y las prestaciones por desempleo, asegurando la coordinación entre las mismas y la colaboración entre los distintos entes implicados en la ejecución de la política de empleo y su gestión y la interrelación entre las distintas acciones de intermediación laboral.

ATARIKO TITULUA
ENPLEGU-POLITIKA

KAPITULU BAKARRA

Arau orokorrak

1. artikulua. Definizioa

Kontuan izanik Konstituzioaren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa, enplegu-politika Estatuak eta autonomia-erkidegoek hartutako erabaki multzo bat da, programa eta neurri batzuk garatzea helburu duena, haien bidez enplegu osoa eta kalitatezkoa lortzeko, enplegu-eskaintzak eta -eskariak kuantitatiboki eta kualitatiboki egokitzeko, langabezia-egoerak gutxitzeko eta langabezia-egoeretan behar den babesa emateko.

Enplegu-politika Europar Erkidegoa eratzeko Tratatuak araututako enplegurako estrategia koordinatuaren eremuan garatuko da, politika ekonomikorako orientazio orokorren barruan.

2. artikulua. Enplegu-politikaren helburuak

Enplegu-politikaren helburu orokorrak dira:

a) Aukera-berdintasun benetakoa eta diskriminaziorik eza bermatzea enplegurako irispidean eta enplegua lortzera bideratutako ekintzetan, kontuan izanik Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan aurreikusitakoa, eta, era berean, lanbidea aukeratzeko askatasuna bermatzea, ezein diskriminaziori biderik eman gabe, Langileen Estatutuko 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Printzipio horiek Europako Ekonomia Esparruko kide diren estatuetak nazionalitatea dutenei aplikatuko zaizkie, eta, beren eskubide eta askatasunak arautzen dituen araudiak ezarritakoaren arabera, beste atzeritarrei.

b) Langabezia-egoeren aurrean babes-sistema eraginkor bati eustea, hots, enplegu-politika aktiboek eta langabezia-prestazioek; eta haien arteko koordinazioa, enplegu-politika betetzen eta kudeatzen parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzak, eta lan-bitartekotzako jardueren arteko lotura ziurtatzea.

c) Adoptar un enfoque preventivo frente al desempleo, especialmente de larga duración, facilitando una atención individualizada a los desempleados, mediante acciones integradas de políticas activas que mejoren su ocupabilidad.

Igualmente, la política de empleo tenderá a adoptar un enfoque preventivo frente al desempleo y de anticipación del cambio a través de acciones formativas que faciliten al trabajador el mantenimiento y la mejora de su calificación profesional, empleabilidad y, en su caso, recalificación y adaptación de sus competencias profesionales a los requerimientos del mercado de trabajo.

d) Asegurar políticas adecuadas de integración laboral dirigidas a aquellos colectivos que presenten mayores dificultades de inserción laboral, especialmente jóvenes, mujeres, discapacitados y parados de larga duración mayores de 45 años.

e) Mantener la unidad del mercado de trabajo en todo el territorio estatal, teniendo en cuenta las características específicas y diversas de los diferentes territorios y promoviendo la corrección de los desequilibrios territoriales y sociales.

f) Asegurar la libre circulación de los trabajadores y facilitar la movilidad geográfica, tanto en el ámbito estatal como en el europeo, de quienes desean trasladarse por razones de empleo.

g) Coordinar su articulación con la dimensión del fenómeno migratorio interno y externo, de acuerdo con lo establecido en los párrafos a) y d) en colaboración con las comunidades autónomas, en el marco de sus respectivas competencias.

Artículo 3. Planificación y ejecución de la política de empleo

1. En el ámbito de competencia estatal corresponde al Gobierno, a través del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, en el marco de los acuerdos adoptados por la Conferencia Sectorial de Asuntos Laborales, la coordinación de la política de empleo.

Igualmente, corresponde al Gobierno, a propuesta del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, y previo informe de este ministerio a la Conferencia Sectorial de Asuntos Laborales, la aprobación de los proyectos de normas con rango de ley y la elaboración y aprobación de las disposiciones reglamentarias en relación con la intermediación y colocación en el mercado de trabajo, fomento de empleo, protección por desempleo, formación profesional ocupacional y

c) Langabeziaren aurrean prebentziozko ikuspegia hartzea, batez ere denbora luzeko langabezia bada, eta langabetuei banan-banako arreta eskaintzea, haien enplegarritasuna hobetuko duten politika aktiboetako jarduera integratuen bitartez.

Halaber, enplegu-politikak langabeziari prebentziozko ikuspegitik begiratzera eta aldatetari aurrea hartzera joko du prestakuntza-jardueren bidez, haien bitartez langileari erraztasunak emanez bere lanbide-gaikuntza eta enplegarritasuna mantendu eta hobetzeko eta, hala badagokio, birgaitu eta bere gaitasun profesionalak lan-merkatuaren eskakizunetara egokitzeko.

d) Lanean integratzeko politika egokiak bermatzea laneratzeko zailtasun handienak dituzten gizataldeentzat; bereziki, gazte, emakume, ahalmen urritasunak dituzten pertsona eta 45 urtetik gorako denbora luzeko langabetuentzat.

e) Lan-merkatuaren batasunari eustea Estatu osoan, lurralde bakoitzaren ezaugarri bereziak eta askotarikoak kontuan izanez eta lurralde- eta gizarte-desorekak zuzentzea bultzatuz.

f) Langileen zirkulazio-askatasuna bermatzea eta enplegu-arrazoiengatik lekualdatu nahi dutenen mugigarritasun geografikoa erraztea, bai estatuaren eremuan bai Europarenean.

g) Barne- eta kanpo-migrazioen fenomenoaren alderdiarekin duen artikulazioa koordinatzea, a) eta d) paragrafoetan ezarritakoaren arabera eta autonomia-erkidegoekin lankidetzan, zein bere eskumenen esparruan.

3. artikulua. Enplegu-politika planifikatzea eta betetzea

1. Estatuaren eskumen-eremuan Gobernuari dagokio, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren bitartez, Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialak hartutako erabakien esparruan, enplegu-politika koordinatzea.

Orobat, Gobernuari dagokio, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak proposatuta, eta aurrez ministerio horrek Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialari txostena eginik, bitartekotza eta lan-merkatuan sartzeari, enplegua sustatzeari, langabezia-babesari, lanerako prestakuntza eta etengabeko lanbide-prestakuntzari dagozkien lege-mailako arauen proiektuak onestea eta erregelamendu-xedapenak egin eta onestea estatu-eremuan, bai eta xedapen

continúa en el ámbito estatal, así como el desarrollo de dicha ordenación, todo ello sin perjuicio de las competencias que en materia de extranjería corresponden al Ministerio del Interior.

En cualquier caso, corresponde al Gobierno, a través del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, la gestión y control de las prestaciones por desempleo.

2. De conformidad con la Constitución y sus Estatutos de Autonomía, corresponde a las comunidades autónomas en su ámbito territorial el desarrollo de la política de empleo, el fomento del empleo y la ejecución de la legislación laboral y de los programas y medidas que les hayan sido transferidas.

3. Los Planes nacionales de acción para el empleo se elaborarán por el Gobierno, a través del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales con la participación de las comunidades autónomas, y se definirán de acuerdo con la Estrategia Europea de Empleo, configurándose como un instrumento esencial de planificación de la política de empleo. Así mismo se contará con la participación de las organizaciones empresariales y sindicales más representativas. Las medidas contenidas en los Planes nacionales de acción para el empleo estarán coordinadas e integradas con el resto de políticas de origen estatal y de la Unión Europea y, especialmente, con las establecidas en los Planes de integración social, con las que deberán guardar la coherencia necesaria para garantizar su máxima efectividad.

Las comunidades autónomas, en sus respectivos ámbitos territoriales, establecerán sus programas de empleo, de acuerdo con las obligaciones establecidas por la Estrategia Europea de Empleo, a través de los Planes nacionales de acción para el empleo.

Artículo 4. La dimensión local de la política de empleo

De acuerdo con lo establecido en la Estrategia Europea de Empleo, las políticas de empleo en su diseño y modelo de gestión deberán tener en cuenta su dimensión local para ajustarlas a las necesidades del territorio, de manera que favorezcan y apoyen las iniciativas de generación de empleo en el ámbito local.

De conformidad con la Constitución, con los Estatutos de Autonomía y con la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, los Servicios Públicos de Empleo de las comunidades autónomas establecerán los mecanismos de colaboración oportunos y en su caso de participación con las corporaciones locales para la ejecución de los programas y medidas de las políticas activas de empleo.

horiek garatzea ere, hargatik eragotzi gabe atzerritarren gaietan Barne Ministerioari dagozkion eskumenak.

Edozein kasutan, Gobernuari dagozkio, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren bitartez, langabezia-prestazioen kudeaketa eta kontrola.

2. Konstituzioaren eta haren Autonomia Estatutuen arabera, autonomia-erkidegoei dagokie beren lurralde-eremuan enplegu-politika garatzea, enplegua sustatzea eta lan-legeria eta eskualdaturiko programa eta neurriak betetzea.

3. Enplegurako ekintza-plan nazionalak Gobernuak egingo ditu, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren bitartez, autonomia-erkidegoen partaidetzarekin; Enplegurako Europar Estrategiaren arabera definituko dira eta enplegu-politika planifikatzeko funtsezko tresna izango. Orobat hartuko dute parte ordezkagaitasun nagusia duten enpresaburu-erakunde eta sindikatuek. Enplegurako ekintza-plan nazionaletan jasotako neurriak Estatuaren eta Europar Batasunaren beste politikekin koordinaturik eta bat eginik egongo dira; bereziki, Gizareratze-planetan ezarritakoekin, eta ahalik eta eraginkorre-nak izateko behar den koherentzia izan beharko dute haiekin.

